

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5036

2047/2022 EBAZPENA, azaroaren 2koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Javier Ruiz Martínez jauna izendatzen den Osakidetzako Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Neurologiako Atal Sanitarioko buru (Kanpo-kontsulten Arloa), aldi baterako, lau urte luzagarri.

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentearen otsailaren 18ko 131/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Donostialdeko ESIko Neurologiako Atal Sanitarioko Burua (Kanpo-kontsulten Arloa) izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez. (2022ko uztailaren 21eko EHAA 141. eta 2022ko abuztuaren 2ko BOE 184).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Javier Ruiz Martínez jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea Osakidetzako Donostialdeko ESIko Neurologiako Atal Sanitarioko buru (Kanpo-kontsulten Arloa).

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28.artikuluaren hirugarren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Javier Ruiz Martínez jauna izendatzea Osakidetzako Donostialdeko ESIko Neurologiako Atal Sanitarioko buru (Kanpo-kontsulten Arloa), aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du eta luzatzeko aukera egongo da, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluaren hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat. Izendapenak 2022ko azaroaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela eta beti ere Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldez aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluaren 6. apartatuan aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta Donostialdeko ESIari.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2022ko azaroaren 22a, asteartea

Donostia, 2022ko azaroaren 2a.

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea.

EB (53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Langileen zuzendaria,
ESTHER LITAGO SOLA.